

NEGOZIO IDEIA

Gure enpresak adineko pertsonak zaintzeko zaintza zerbitzu malgu bat eskainiko du. Horretarako, webgune bat eta aplikazio bat sortuko ditugu, hainbat zaintza zerbitzu ezberdin eskainiz eta adineko pertsonen gure zerbitzua modu malgu nahiz pertsonalizatu batean eskatzeko aukera eskainiz.

- **Asetu gabeko beharra:**

Adineko pertsonen behar guztiak ezin dira asetu, eta normalean ez dugu denbora haiek zaintzeko. Gaur egun, gizartean existitzen diren zaintza zerbitzuak oso zurrusak dira. Beraz, gure negozioak eskaintzen duen asetu gabeko beharra, zaintza zerbitzua modu malgu batean eskaintzea da. Familiek gure zerbitzua behar duten momentu horietan bakarrik kontratatuko dute (ordu bat, egun bat...) eta horregatik bakarrik ordainduko dute. Horrela ezberdintzen gara gaur egun existitzen diren eguneroko/asteroko ordutegi finkoak dituzten zaintzaile edo zaintza zerbitzuetatik. Horretarako, sortu dugu gure enpresa.

Aldi berean, gure enpresak erantzunkizun soziala barneratuta dauka, gizarteari, gure kasuan, adineko pertsonen eta haien familiei, laguntzen ari garelako.